

KARMEEL

XI. GN. URTEA, 1961

IRAILLA-URRILLA

(LARREA-ZORNOTZA)

Depósito Legal: BI 79-1958.—GRAFICAS BILBAO

Zuk Nai Dozuna, Jauna...

Jaio, bizi, il... Oi Jaun!, zure eskuetan daukazu dana. Gu, alan be, lurtar koskarrok, beko zerai lotuta bizi gara. Orrela ez ba'litz...

Adimen ta biotz, Zuk egiñak gaituz. Biotza sarri askotan gauza ta lagunetan jarri daroaguz. Biotza, baiña, ez ete daukuzu emon maitatzeko? Bai, orrela da!

Eta Zuk, bizi-legea beterik, maite dogunen bat kentzen daukuzuneen, odoletan geratzen yaku biotza. Ta orrela be Zure ardurapean bizi gara. Naitaez. Zure egiñak goretsiz.

Ba-dogu Zuk beñola erakutsitako otoitza: "Egin bedi zure borondatea, zeruan lez turrean be". Orrelaxe bedi, Jauna, aldiro, Zuk nai dozuna getta bedi. Zu bai zara bizi ta erioeren jabe ta zuzendari.

Oraingo eldiz, guk maite genduzuna eroran daukuzu. Badakizu nor aitu-tzudan, biotzez maite zinduzen-eta. Meitasun ori bere liburuetan josia itxi dauku. Guk be bere antzeko izaten ikasi daigun ete?

Meitasun bik erabillen gizon eu, zure gizaki jator au. Zugarakoa zuzen bata, ta Zuk noizbait guri emondako erri ta lurralde onengenekoa bestea. Maitasun

bi, ta biak nunbait zindo sendoak. Zuk ez dozu nai. Zeuk emondako ezer galtzerik; gure izkuntza zurea da, beraz ez dozu nai onen eriorik. Gaur illotz dogun zure otseiñak, bada, biziro maite izan eta trebeki landu eban lurtar gizaki zuzen bitartean.

Ezta Zu be, askoren antzera, ez zinduzan egundo albara itxi. Gazterik ebillen Zugarako maitez: bizitzan zear, ez ehorz itziz perrotik egin. Azken aldira, berriz, Zure billa ebillan garrasi gordiñez. Ezagun dozuz bere idatziak. Gurutzeko Jon zure morroi zintzoak erakutsi eritson Zugarako biderik egoki ta berbera: eta, gerora, bide berriarez ebillirik dituzu maite-gar bizitan. Zure maitez beti.

Sarigueri dozu, ta onekero er daukogu zuzen asko, zure altzo gardenean, argiz aser. Bai, emoiogu, merezi dau-ta, betiko atsudena. Eta bego or, zorriantegi diraditsuan, emen ain lastan izan ebizun: Lizardi ta gainerakoakaz butean.

Eta, azkenez, oroi dedilla gugaz; danekin, baiña batez be asmo ta ardu-ra bardaiñak adoretuta gabiltzanokaz. Agur, ORIXE! Ikusi arte.